

Conmemoración institucional 90 aniversario de Euskaltzaindia

AGIRRE LOPEZ, Xabier
Arabako Ahdun Nagusia
Diputado General de Álava

Lehendakari jauna
Euskaltzainburu jauna
Nafarroako presidente jauna
Bizkaiko eta Gipuzkoako Ahdun Nagusiak
Donostiako alkate jauna
Agintariok
Euskaltzainok
Lagunok.

EGUN ON!

Gaur eta hemen, egun handia ospatzen dugu jaun-andreok.

Euskal Herrian jaio eta bizirik den erakunde historiko honek laurogeita hamar urte bete ditu.

- Zorionak, bada, euskaltzainburu jauna!
- Zorionak, euskaltzain zaretan jaun-andreok!
- Zorionak eta nire eskerrik beroena zuei, euskararen alde egindako lanagatik.

Gaur, duela LAUROGEITA HAMAR (90) urte bezalaxe, Araba zuekin dago.

Aurrerantzean ere, Arabak bat egingo du gainontzeko euskal lurraldeekin eta, orain arte bezala, gogotsu helduko die bere eginbeharrei Euskaltzaindiari dagokionez.

Gaur eta hemen, Euskaltzaindiaren sorleku den honetan, gogora ekarri nahi ditut orain baino lehen euskarari eta Euskaltzaindiari beren onena eman dieten hainbat arabar.

Gogoan dut, lehenik eta behin, Juan Pérez de Lazarraga zalduna.

Gogoan dut Euskaltzaindia sortu aurretik Akademia baten beharra aldarrikatu zuen Jose Paulo Ulibarri Galindez jauna.

Gogoan ditut, halaber, Eusko Ikaskuntzak mila bederatzirehun eta hemezortzian (1918) Oñatin egindako biltzarrean izandako arabarrak. Besteak beste, Luis Eleizalde, Enrique Eguren eta Angel eta Odon Apraiz.

Gogoan dut Raimundo Olabide euskaltzaina.

Gogoan dut Andoni Urrestarazu «Umandi» euskaltzale fin bezain oparoa.

Gogoan dut Izaskun Arrue andereñoa.

Gogoan dut Henrike Knörr saiatua bezain nekaezina.

Aintza eta ohore guztiei!

Besterik gabe.

EKIN eta JARRAI ZUEN EGITEKOAN.

Mila esker.